

(5. gaia: gogamenak eta niak materiaren baitan)

Eguneroko bizitzan denok erabiltzen dugu psikologia xume bat maila batean edo bestean, gure burua edota besteena interpretatzeko, jokabideak deskribatu eta ulertzeko, besteekiko harremanak bideratzeko... Esan daiteke psikologia xume honi esker besteekin harremanak izateko gaitasuna dugula, eta beraz, eguneroko bizitzan beharrezkoa da. Esparru honetan gabeziak izateak bizimodua kaltetu dezake, autismoa duten pertsonen kasuan bezala.

Psikologia xume honi buruz hitz egiterakoan hainbat kontzeptu edo entitate aipatzen dira: nia, gogoa, arima, gogo egoerak (hala nola usteak edo itxaropenak)... Hauek guztiek, eta gehiagok, *mundu mentala* osatzen dute, gizakiari edo animaliei atxikitzen zaien berezko ezaugarria. Mundu mental honi esker gure ingurua ulertzeko, behatzeko eta interpretatzeko gaitasuna dugu, eta beraz ulergarria da hainbat zientziaren erdigune izatea (psikologia, neurozientziak), eguneroko bizitzan ezinbestekoa izatea eta filosofiaren auzi klasikoa izatea, gogoaren filosofia deituriko adarraren aztergai baita. Ikusi daitekenez, *mundu-mentala* zehar kontzeptu argi bat da, eta honekin lotzen diren hainbat auzi filosofiko klasiko argitzea izango da atal honen helburua.

1. Oinarrizko bereizketak. Gogo-egoera motak

Mundu mentalak berezko hainbat ezaugarri ditu, hala nola, haren ezagutzari dagokion asimetria, norberaren eta besteen mundu mentala aztertzerakoan ematen dena. Nire egoera mentalak ezagutzerakoan introspekziara jo behar dut, inongo bitartekorik gabeko ezagutza pribatu bat eskuratzeko. Autore ugariaren arabera ezagutza hori hutsezina da, hau da, nik mina sentitzen badut mina dut, eta inork ezin dezake ukatu nik mina dudala. Kontrakoa gertatzen da besteen mundu mentala ezagutzerakoan, haien hitza aintzat hartu behar da, eta ezin daiteke beste bide batetik argudiatu mina hor badagoen edo ez. Egoera hau ez da beste esparru fisikoetan ematen, adibidez, fisika edo kimikako kontzeptuak berdin-berdin aplikatzen dira lehenengo edo hirugarren pertsonan. Descartesek introspekzioaren garrantzia muturrera eramane zuen, bere teoria filosofikoaren erdigunea bihurtuz: introspekzioaren bidez puntu ziur batera iristen gara, ni-a existitzen dela, eta hortik errealitatea eraiki daiteke. Muturrezko jarrera honen aurka Wittgeinstein egongo litzateke, bere ustez, mundu mentala hautemateko kanpoaldera jo behar baita, giza jokabideak eta ikuspegi soziala baitira garrantzitsuenak arlo honetan.

Orain arte mundu mentalean berebiziko garrantzia duten entitateak, gogo-egoerak, nahiko aipatu dira, eta beraz beharrezkoa da hauen inguruko azalpen bat ematea. Normalean gogo-egoerak hiru taldetan banatzen dira:

- Proposizio jarrerak: Bertrand Rusellek proposatutako gogo-egoera hauek hiru elementu izan behar dituzte (subjektua, gogo egoera mota eta proposizioa). Honen adibide izango litzateke *nik uste dut euria egingo duela*: ni (subjektua), ustea (gogo-egoera mota) eta euria egingo du (proposizioa edo baieztapena). Kategoria honetan usteak, nahiak, jakiteak, susmoak... sartuko lirateke.

- Sentsazioak (*qualiak*): lehen pertsonan hautematen ditugunak dira, hala nola, lehen aipatutako mina, norberak bakarrik sentitu ahal dituenak. Normalean egoera fisiko batekin (gosea) edo zentzumenekin (soinua) lotzen direnak dira.
- Emozioak: hauen inguruko ezatabaida dago, autore ugari sentsazio gisa sailkatzen dituztelako (gradu desberdinetan sentitu ahal dira, adibidez, beldurraren sentsazioa), baina proposizio itxura ere izan dezakete (nik armiarme beldurra diet). Gainera, emozioei buruz hitz egiterakoan hauek eta sentimenduak bereizi behar dira, askotan nahasten dira eta. Emozioak gorputz egoeraren aldaketa mota bat da, sentsazioetatik hurbilago daude, eta sentimenduak berriz konplexuagoak dira eta proposizioetara gehiago hurbiltzen dira.

Aipatu behar da sailkapen hau ez dela sailkapen absolutu bat, ez dagoelako honen inguruko adostasun absoluturik. Ikusi daiteke gogo-egoera mota hauen arteko mugak nahasiak direla, kasuz kasu alda daitezkeela, mundu mentala benetan konplexua delako.

2. Gorputz gogoen auzia antzinako filosofian

Mundu mentalaren inguruko gogoetak oinarritzkoak izan dira beti, bai zientzia desberdinek haien esparru mugatuetan egindakoak bai modu orokorrean filosofian egindakoak ere. Azken kasuan, metafisikarekin edo espistemologiarekin lotzen diren galderak agertzen dira, betidanik filosofiaren oinarrian egon direnak. Mundu mental honi atxikituta hainbat gai jorratu dira, antz "arimaren" eskutik datozenak: hileskortasuna, aukeramen askea, *gorputz-gogoen* auzia, gizakiaren eta animaliaaren arteko desberdintasuna...

Hasteko, gai honekin lotzen den hiztegi nahasia aipatu beharra dago, autoretik autorera edo garaitik garaira kontzeptu desberdinak erabili direlako berdina izendatzeko. Descartesek, adibidez, gogoa, arima eta espiritua erabili zituen, baina gaur egun esparru zientifikoan azken biak guztiz baztertu dira, arima filosofiarekin lotuz eta espiritua erlijioarekin. Aristotelesek bere aldetik *psyche* kontzeptua erabiltzen zuen, arima bezala itzulitakoa, baina biologiaren ikuspegitik aztertuko du hau, ez erlijiosotik.

Grezia klasikoan arima, gure mundu mentala, ulertzeko hainbat ikuspegi proposatu ziren, sinplifikatuz hirutan banatu daitezkeenak:

- Ikuspuntu dualista mistikoa

Ikuspuntu dualistaren ordezkari klasikoa Platon da. Berak, gehien bat *Fedon* elkarrizketan, arima eta gorputza substantzia edo euskarri desberdinak direla defendatu zuen, eta gainera gorputzari konnotazio negatiboa eman zion. Gorputza arimaren traba gisa deskribatuko du, zoritxarreko maitasun, desio beldur... sentimenduen sortzailea izango da, arimaren berezko jarduerak aurrera egitea eragozten duen oztopoa. Ildo honetatik heriotza arima gorputzetik aldentzea baino ez dela defendatuko du, eta beraz honen inguruko ikuspegi positiboa planteatuko du. Ikusi daiteke Platonek arimaren eta gorputzaren arteko leize sakon bat

planteatzen duela: arima jainkozkoa, ilezkorra, ulergarria, beti-batekoa eta deseginezina da, eta gorputza berriz hilkorra, ulertezina, multiformea eta desegingarria.

Ikuspuntu honen inguruan kontu etiko-moralak daude, gehien bat benetako justizia lortzarikin lotzen direnak. Munduan errudunak eta errugabeak ez dira argi azaltzen, beraz heriotzaren ondoren egon behar den benetako justizia lortzeko gure atalik garrantzitsuenak heriotza gainditu behar du. Argudio honetan premisa etiko-moral batetatik tesi ontologiko batera (muturrezko dualismo batera) iristen da Platon, baina bestelako argudioak eman dira horixe bera defendatzeko, hala nola, hiluezkorrak izateko dugun nahia.

- Hiruko arima (HA)

Hiruko arimaren sailkapen honetan haien artean desberdinak diren ikuspegiak daude, baina denek dute ezaugarri bat amankomunean: ikuspuntu dualista mistikotik aldentzen dira, arima naturaren inguruan dakigunarekin lotzen saiatzen direlako. Ikuspegi hau Platonen *Fedro* elkarrizketan ikusi daiteke, non arima hiru zaldi gisa banatzen den: batek adimena irduikatzen du, besteak arima grinatsua eta besteak apetitiboa. Hau justifikatzeko naturan agertzen diren nahi maila desberdinak erabiltzen ditu Platonek, HA-ren izaera bera aurkeztuz. Hau Platonen ikuspegian nabariagoa bihurtzen da *Timeo* elkarrizketan, arima mota bakoitza gorputzaren atal batekin lotzen denean.

HA-ren tradizioan kokatu daitekeen beste autore klasiko bat Aristoteles izan daiteke, bere ustez arimak hiru alderdi edo gaitasun ditu eta: elikatzeko gaitasuna, hautemateko gaitasuna eta pentsatzeko ahalmena. Honekin jarraituz, Aristotelesek gorputza eta arima desberdindu ditu, baina ez ditu bi substantzia desberdin bezala irudikatuko. Bere ustez, arima gorputzaren forma izango da, Aristotelesen filosofian formak duen esanahia kontuan hartuta. Hau azaltzeko etxe baten adibide jar daiteke: etxe bat definitzerakoan bere materialak kontuan hartzen dira baina ez dira etxearen gauza bera, esan daiteke materialek etxea osatzen dutela eta formak material horiek modu jakin batean antolatzen dituela etxe bat izan dadin. Arimari aplikatuz, gorputzak arima osatzen du eta honek gorputzrai forma ematen dio, beraz bi gauza desberdin dira baina ezin dira banatu.

Beste alde batetik Aristotelesek animaliek ere arima dutela defendatuko du, Descartesen edo estoikoen ikusoegiaren aurka, haien ustez animaliak makina oso konplexuak dira eta. Aristotelesek arima natural bihurtzen du, non arimaduna izatea eta biziduna izatea gertu-gertuko kontzeptuak diren. Bizidunen erresuman hautemateak jauzi garrantzitsu bat suposatzen duela esango du, eta horregatik banatzen dira landareak eta animaliak maila oso desberdinetan. Gizakiaren desberdintasunei dagokienez adimenaren ondoriozkoa dela esango du, eta ez arimarena, baita adimen hau beste animalien gaitasun desberdinen testuinguruan ulertu behar dela ere. Amaitzeko, Aristotelesek ez du dualismoarekin bat egingo, bere ustez izaki bizidun denak goitik behera materiaz eginda daudelako, baina aldi berean esango du arimarekin zerikusia duten auziak ez direla soilik zelula edo atomo kontuak. Laburki azalduz: mundu mentala mundu fisikotik sortu arren, ez da mundu fisikora erreduzitzen.

- **Materialismoa**

Materialismoa hainbat autore klasikok defendatu izan dute, hala nola, Efesoko Heraklitok, Demokritok, Leuzipok... baina dudarik gabe, ikuskera honen ordezkari nagusiak Epikuro eta Lukrezio izan dira. Epikurok *kausazko itxituraren* teoria proposatu zuen. Honen arabera, materia ez den ezerk ezin du materialian eraginik izan, eta beraz, arimak gure gorputzean eragiten duen heinean, materiazkoa izan behar du, atomo mota bat. Lukreziok, bere aldetik, gogoaren eta arimaren arteko banaketa egingo du: alde batetik gogo dago (nahimenaren eta hautuaren printzipioa, neurri batean arrazionala) eta arima (bizitasuna, alderdi ez arrazionala).

Lukrezioren eta Epikuroren kasuan arima edo arima/gogo materiazkoak izango dira, eta beraz, dualismoak ez bezala, materialismoak ez dio ezer gehituko errealitateari, ez da beste substantzia mota berririk behar. Arima atomoak diren heinean (atomo mota bereziak, arinagoak), heriotza materia mota hauek hanka egitean gertatzen dena da, galera materialik suposatzen ez duena. Gorputza eta arima guztiz batera doaz, batera jaiotzen dira, eta batera hil.

3. Gorputz-gogoen auzia filosofia modernoan eta gaur egun

Aurreko atalean gorputzaren eta arimaren arteko erlazioaz aritu gara, filosofia klasikoaren teoriak erabiliz. Oraingo honetan, horixe bera egingo dugu, baina Descartesen teoriatik abiatuz gaur egungo proposamenetara heldu arte:

- **Dualismo modernoa:**

Descartesen teoriaren oinarrian *materiazko substantzia bakarra* kokatzen da, materiazkoa den ororen osagarri bakarra dena. Autorearen arabera eguneroko bizitzan ikusten ditugun ustezko substantzia baanduak (egurra, buedina, gorputzak...) ez dira benetakoak, *materiazko substantzia bakarraren* aldakuntzak edo *moduak* dira. Honen ondorioz zientziaren helburua materia honen portaera ezagutzea izan behar da, eta ezagutza hau posiblea dela defendatuko du, hizkuntza matematiko baten bidez adierazi daitekeela esanez. Honi materiaren ikuspuntu mekanizista deritzo, hau da, lege gutxi batzuen bidez materia denaren portaera arautzen delaren ikuspuntua.

Gizakiari dagokionez, Deskartesek esango du gizakia bera ezin dela materiaren modu batera murriztu, baina gorputza bai. Gorputza imitatzen duen makina perfektu bat izango bagenu, ezin izango genuke gizaki bat sortu, honen ekintzen eta hizkuntzaren malgutasuna ezin daitekeelako modu artifizialean sortu. Gizakiak arrazoi argi gabe gauza bat egingo du bestea egingo zuela argi bazegoen ere, edo hitz jakin bat erabiliko du modu espontaneo batean, inolako araurik jarraitu gabe. Makina honi beti osagai bat faltako zaio: arima. Descartesek, beraz, ez du arima hilezkortasunaren edo arau moralen ikuspegietatik aztertuko, baizik eta argudio epistemologiko bat emanez: gorputzak A ezaugarria badu eta arimak berriz ez, gorputza eta arima substantzia/materia/gauza desberdinak izan behar dira.

Horrela, introspektzioaren bidezko ziurtasunera jotzen du, arima eta gorputza modu independentean existitzen diren entitateak direla ondorioztatuz.

Dualismo modernoari egindako hainbat kritika daude, honen argudiaketa oinarritutakoak baita honen ondorioetatik arduratzen direnak ere, baina agian interesgarria *interakzioaren* edo *eragin-trukearen auzia* izan daiteke. Honen arabera, arimak gorputzean eragiten badu (besoa mugitu nahi badut besoa mugituko dut) eta gorputzak ariman (mina badut haserre egongo naiz), argi gelditzen da espaziotik kanpo dagoen mundu mentalak espaziotik mundu materialan kausatzeko gaitasuna duela, eta beraz bi mundu hauek entitate guztiz independenteak direlaren ideiak ez du zentzu praktikorik.

Dualismo modernoarekin amaitzeko, honen bultzatzaile edo defentsa kontsideratzen diren bi esperimendu azalduko ditugu. Lehenengoa, Thomas Nagel filosofoak idatzitako artikulu batean proposatzen da, *What is it like to be a bat*, eta bertan defendatzen da saguzarrei buruz jakin ahal dena ezagutu arren ezin izango dugula ulertu saguzarrek nola sentitzen duten, esperientzia subjektiboa harrapaezina delako baliabide materialekin, Bigarren esperimendua, *What Mary didn't know*, Frank Jacksonek proposatu zuen, eta bertan beti zuri beltzeko gela baten barruan egon den Mary azaltzen zaigu. Bere bizitzan zehar kolorei eta ikusmenaren neurofisiologiari buruz jakin daitekeen dena ikasten aritu da, baina azkean kalera atera eta tomate bat hartzerakoan, momentu hortararte ikasi ez duen zerbat barneratzen du: gorriaren esperientzia.

- **Identitate-teoria, materialismoaren oinordeko**

Identitate-teoria aurrerapen zientifikoetan oinarritzen den materialismoaren oinordekoa da, identitate-baieztapenean oinarritzen dena. Adibidez, guk betidanik ura kontzeptua erabili dugu edaten den hori izendatzeko, baina zientziaren bidez aurkitu da ura izatez H₂O dela. Bi kontzeptu horiek, aurkikuntza zientifiko baten bidez, ideia bera izendatzeko mota bera direla ezagutu dugu, eta horrek ez du esan nahi lehen erabiltzen genuen ura ez existitzea. Antzeko modu batean, identitate-teoriak defendatuko du garunari buruzko ikerketek mundu mentala mundu fisikora erreduzituko duela, ikusiko delako mentala kontsideratzen den oro benetan fisikoa dela.

Teoria honek arrakasta erlatiboa izan dezake sententzietei dagokienez, agian horiek garunaren egoerak izan daitezkelako, baina beste esparru askotan zuloak ditu. Adibidez, proposizio-jarrerek duten izaera intentzionala (nik Paris polita dela uste badut erreferentzia egiten diot Paris hiriri) azaltzea ezinezkoa suertatuko zaio. Gainera, teoria honek ez du kontuan hartzen *minaren sententzia* garunaren egoera bat soilik izateak inplikatzeko duela gurea bezalakoa ez den garuna duten izakiek, edota garuna ez duten izakiek, ez dutela minik sentitzen, hainbat pentsalarik defendatzen duten bezala.

- **Konduktismo logikoa**

Konduktismoaren arabera dualismoaren oinarrian akats handi bat dago, gogoaren entitate propioa eta independente batekin lotzearena, hau egoera baten aurrean ditugun jokabideetara murrizten delako. Demagun pertsona bati unibertsitateko eraikin guztiak

erakusten dizkiogula, eta amaitzean, galdetzen duela ea unibertitate non dagoen, unibertitate erainetatik kanpo dagoen entitate gisa ulertu duelako. Horrelako zerbait gertatzen zaio, konduktismoaren arabera, dualismoari, gogo gorputzetik kanpo dagoen entitate gisa ulertzen duelako. Beraz, gogo egoera orok honek dakartzan jokaeren multzoa baino ez da (mina umore txarra eta garrasiak izango dira soilik), gogo egoeren inguruko diskurtso osoa ezabatuz. Proiektu hau, funtsean bideraezina da, gogo egoerak beti agertuko direlako. Mina umore txarra bezala definitzeko gogo egoera den umore txarra kontuan hartu behar da, eta horrela beti.

Konduktismo logikoaren aldeko esperimentu garrantzitsuena Alan Turingena izan daiteke, makina batek gizakiaren portaera imitatuz gogo-egoerak bereganatu eta imitatzeko gaitasuna duen edo ez neurtzeko test bat proposatu zuen eta. Hala ere, John R. Searlek argudiatu zuen imitazioaren bidez gizakiaren portaeraren antzekoa den zerbait lortzea posiblea bada ere, makinek lortuko duten hoberena gizakiaren plantak egitea izango dela, ez gizakiak bezalakoak izatea.

- **Funtzionalismoa**

Korrante honen arabera, gogo-egoerak funtzionalki ezaugarritu behar dira, hau da, honen kausak, efektuak edo beste gogo-egoerekin duten erlazioaren bidez ulertu behar dira. Konduktismoan ez bezala, honen helburua ez da gogo-egoerak ezabatzea, onartzen baita gogo-egoera denak harremanetan egon behar direla, baizik eta gogo-egoera ororen gauzarik garrantzitsuena bere *funtzioa* dela zehaztea. Gainera, funtzionalismoak gogo-egoera hauek modu desberdinetan gorpuztu daitezkeela defendatuko du: ez da berdina izango nik uste bat izatea edo txakur batek uste bat izatea, baina biak usteak izango dira. Ikusi daiteke, beraz, funtzionalismoa materialismotik eta dualismotik aldentzen dela, eta horregatik hiruko-arimaren teoriaren oinorde gisa ulerte daitekeela. Alde batetik esango du gogo eta gorputza ez direla gauza bera, funtzio desberdinak dituztela, baina gorputzik gabeko gogo existitzea ezinezkoa dela ere esango du.

Mundu-mentalaren konplexutasunaren ondorioz zaila da teoria batek gogo-egoera mota guztiak argitzeko gaitasuna izatea. Demagun, adibidez, pertsona batek semaforoaren argia gorria dagoela ikusten duela eta gelditzen dela. Esan dezakegu berak eta nik gorriaren esperientzia berdin bizi dugula, bere funtzioa (gelditzea) bete duelako, baina inoiz ezin izango dugu jakin berak gorria nik bezala ikusten duen, gorriaren esperientzia hori subjektiboa eta pertsonala delako, eta kasu horretan teoria kartesiarraren introspektzioa egokiagoa izango litzateke.

4. Ni-arekin bueltaka

Dudarik gabe, mundu mentalaren protagonista ni-a edo norberaren burua da, ia gogo-egoera denen erdian jartzen dugun kontzeptu hori. Descartesen arabera nia introspektzioz hauteman daitekeela, sentsazioen subjektua edo pentsatzen duen hori baita nia. Hala ere, Descartesen niak ez du kontuan hartzen ez honen denborazko alderdia ez

alderdi soziala, bakarrik momentu jakin batean gure baitan existitzen den entitatea dela. Honen aurka, Lockek nia gure aurreko oroimenekin lotuko du, pertsona izateko beharrezkoa den kontzientzia jarraituari garrantzia emanez. Horrela, pertsona (kontzientzia jarraitu hori duen kategoria psikologikoa) eta gizakia (kategoria biologiko hutsa) bereiztuko ditu, eta esango du posiblea dele pertsona izatea baina ez gizakia (androideak) edo gizaki izatea eta ez pertsona (oroimena galdu izana). Beste ikuspegi batek niaren alderdi soziala erdigunean jarriz norberaren bizitzaren esperientzia narrazio batekin alderatuko dute, non fikziozko beste pertsonaiei esker ezagutzen eta bizitzen dugun.

Badirudi teoria hauek kontrakoak direla: batean barne mundua gainesten da, bestean esperientzia, eta bestean narrazioa. Hala ere, izan daikeke denak niaren alderdi desberdinetako deskribapenak izatea, nia entitate konplexuena baita. Izan ere, nia, bere baitan eta metafisikoki, ez da existitzen, bre batasun bakarra nominala edo kontzeptuala da, hizkuntza mailan soilik ezagutzen da. Egia da gaur egun arte zientziak ez duela frogatu nia existitzen ez denik, baina bai garunaren fenomeno konplexua dela.

5. Libreak al gara?

Ekintza bat aurrera eramaterakoan, erabakia hartzearen prozesua bi modutan ulertu daiteke: arrazoi desberdinengatik erabaki dut joatea (nire gurasoen etxera noa asko maite ditudalako eta pasadan astean esan nielako joango nintzela), edo nire garunean egoera neurologikoen kate batek eraman nau hori egitera. Lehenengoan, *psikologia xumearen* kontakizunean, askatasuna da protagonista: erabakia nik hartu dut, eta banuen beste erabaki bat hartzea. Bigarreanean berriz, niaren papera (edo existentzia) zalantzan gelditzen da, edozein erabaki ekintza neurologikoen emaitza sinplea bada, erantzukizuna eta aukeramen askearen auziak ezabatzen direlako.

Beraz, bi kontakizun edo diskurtso ditugu: batean askatasuna da nagusi (A), eta bestean determinismoa (D). Honek hiru kasu proposatzen ditu, biak ukatu ahal direlaren ideia alde baterautzita:

- **A onartzea, D onartzea:** jarrera hau konpatibilista deitzen da, eta bi diskurtsoak bateratzearen helburua du, haien arteko distantzia laburtuz. Konpatibilismoak azaldu behar du psikologia xumearen bideak dituen azpi-prozesuak uste baino konplexu eta zurrunagoak direla, eta berriz prozesu neurologikoak uste baino malguagoak izan ahal direla, hau da, naturaren baitan malgutasun edo askatasun maila bat duen izaki bat existitu daitekeela.
- **A onartzea, D ez onartzea:** aukera honen aldekoak libertarioak dira, eta dualistek egiten duten banaketaren antzeko zerbait proposatzen dute. Onartzen dute gorputza prozesu biologikoengatik determinatuta dagoela, baina bestelako substantzia bat dagoela esango dute, askea izateko gai dena ez dagoelako gorputzari lotuta. Ikuspegi honek dualismoak proposatzen dituen galdera berak sortarazten ditu, adibidez, bi substantzia hauen arteko erlazioaren nolakotasuna.

- **A ez onartzea, D onartzea:** aukera hau zientistek defendatzen dute, eta psikologia xumearen diskurtsoa guztiz ezabatzen dute esanez gure bizitzako edozein asparru zientziak epaitu beharko lukeela. Ikuspegi honek izaera zuzentzailea du, gauzak ulertzeko modu berri bat proposatzeaz gain aurrekoa guztiz okerra dela diolako.

Kontuak kontu, askatasunaren auzia oso konplexua dela ikusi daiteke, honen nolakotasuna edo existentzia bera kuestionatzeaz gain, kontuan hartu behar delako eguneroko bizitzan ematen diren egoera desberdinek ere baldintzatu dezaketela: ez naiz askea izango manipulazioa pairatzen badut, edo drogen menpe banago, edo iragarkiek eta sare sozialek nire iritzian eragina badute...

6. Animaliak, gizakiak eta robotak

Mundu mentalari buruz hitz egiterakoan gizakira mugatu gara, baina animaliak edota makina sofistikatuak ere eztabaidan sar daitezke, maila batean edo bestean mundu mentala dute eta. Izaki hauek gure buruarekin alderatzen ditugunean hainbat galdera sortzen dira: zenbateraino gara antzekoak? zer motatako gogo-egoerak dituzte animaliek? haien ekintzen gaineko erantzukizuna al dute?

Auzi honen ildotik mendebaldean azken urteotan beridntasunaren aldeko mugimendu ohikoei (gehien bat arrazakeriaren eta matxismoaren aurkakoak) animalien eskubideen aldeko mugimendua gehitu zaie, baina honek desberdintasun handia bat du: aipatutako kasuetan eskatzen dena da subjektu bat eskubide-betebehar-erantzukizun-zigor-sari saren sartzea, gizarteko partaide oso bat kontsideratzea, baina animaliei dagokienez, hori ez da kasua. Hartaz, ikusten da eskubide hitza ez dela berdin erabiltzen, animaliak ezin direlako inolatan subjektu moralak izan. Azken hau egia izan litzateke umeen edo desgaitasun larriak dituzten pertsonen kasuetan, baina horren bestelako eztabaida merezi du.

Aipatu dugu animaliak ezin direla subjektu moral kontsideratu, baina esan beharra dago hau ezaugarritzeko arazoak egon direla. Pentsalari batzuek uste dute enpatia izateak egiten duela izaki bat subjektu moral, beste batzuek adimena izateko gaitasuna.... Kontuak kontu, ikusi daiteke, animalen erresuman dauden desberdintasunak ere kontuan hartuta, modu orokorrean ezin daitekeela esan animalia inoiz gaitasun horretara heldu ahal denik. Mark D. Hauserrek ikerketa ugariaren ondoren hurrengo ondorioztatu zuen, akatsetarako lekua utzi bazuen ere: animaliek ez dute kontzientziarik, zurrinak dira grinak kontrolatzerako orduan, ez dute gaitasunik besteei gogo-egoerak atxikitzeke edo haienak ulertzeko, ez dituzte emozioen arauak ulertzen...

Ondorioztatuz, esan daiteke animaliek bizitza mentala dutela, eta horregatik haiekiko kontsiderazio moralak izan behar dugula, baina haien bizitza moralaren nolakotasuna zalanztan jarri daiteke. Aipatutako hau animaliei baita adimen artifiziala duten robotei aplikatu ahal zaio, desberdintasun nabari batekin, animaliak naturan bizi direlako eta robotak berriz guk sortutakoak direlako.

(6. gaia: balioak eta egitateak)

Ekintza baten inguruan hainbat judizio edo baieztapen egin ditzakegu, adibidez, tortura bat deskribatzeko esan daiteke 10 ordu iraundu duela edo nazkagarria dela. Lehenengoa egitate bat izango da, izaera deskriptiboa dutenak eta maila batean edo bestean objektiboak kontsideratu daitezkenak. Bigarren baieztapena (*zerbait nazkagarria da*) balio bat da, gai honen erdigunea. Zerbaiti balio bat jartzen diogunean eskala batean kokatzen dugu, positiboa edo negatiboa den kontuan hartuta, eta horregatik pentsalari ugari argudiatu dute balioak ezin direla gizakirik gabe sortu. Iruditu daiteke balioak soilik iritziak direla, baina gure portaera determinatzen duten heinean, ezinbestekoak dira bizikidetzarako: gizakiak batera bizi behar gara, eta horretarako beharrezkoa da balioen minimo bat banatzea, mundua ikusteko antzeko modu bat izatea.

Egia da egitateak eta balioak banatzea ez dela beti hain sinplea, batzutan zaila dela banatzea zer den egitate bat eta zen balio bat, eta horregatik filosofiaren auzi garrantzitsu bat izan da hauek bereiztea eta hauen arteko erlazioa aztertzea.

1. Egitateen eta balioen harteko hartu-emanari buruz: Platon, Hume, Wittgenstein eta Moore.

Wittgensteinek esango du balioak eta egitateak guztiz bestelakoak direla, eta beraz, ezin dela bata bestetik ondorioztatu. Ezin da lotura zuzen bat egin *hamar orduz torturatu zuten* eta *tortura nazkagarria da* baieztapenen arteko lotura egin, Humek aurretik esan zuen bezala, ezin delako *den* horretatik *izan beharko lukeena* logikoki ondorioztatu, hori iruzur logikoa izango litzateke. Horregatik, Wittgensteinek esango du egitateak zientziaren objektu direla, eta balioak jarduera zientifiko honetatik kanpo gelditzen direla. Zientziak uzten duen hutsunea betetzeko hezkuntzan erlijioa erabili ohi da, eta pentsalariak erlijioa aipatzen ez duen arren, erlijio-zientzia dualismo honen aldeko plateamendua egin zuen. Dualismo honen alde hainbat pentsalarik defendatuko dute egitateen munduan dena egia edo faltsua dela, eta balioen erresuman berriz erlatibismoa dela nagusi.

Dualismo honen aurkako hainbat pentsalari daude, egitateen eta balioen arteko harresia eraisteko saiakerak egin dituztenak. Bide nagusia balioak egitateak erabiliz definitzea da, hauek egitate bihurtuz, eta beraz haien epistemologia eta metafisika konplexua azalduz. Honi balioen *erredukzionismoa* deritzen, eta hainbat pentsalariren arabera, horrela balioak naturalizatzen dira.

2. Balioen erresuman barrena. Objektiboa eta subjektiboa.

Orainarte marraztutako irudiak balioen eta egitateen arteko harremana ulertzeko baliagarria izan daiteke, baina hauen inguruko ikuspegi sinpleegia irudikatu dezake. Alde batetik egitateak zientzian oinarritutako baieztapen argi gisa ulertzen dira, baina ez da kontuan

hartzen hauek egitate-sare konplexuen parte direla eta gehienetan egitate hauek balioz inguratuta daudela.

Balioei dagokienez, ez da kontuan hartzen hauen erresuman zonalde oso desberdinak daudela: desadostasunak ematen direnean, balio mota batzuek argudiaketa bidea irekitzen dute eta beste batzuek ez. Nik esaten badut “txokolatzeko izozkia hoberena da”, beste baten “natazko izozkia hoberena da” esaten duenean ez dut argudiorik izango txokolatea hoberena dela konbentzitzeko, baieztapen horrek ez duelako egia-baliorik. Balio mota hauek “nire ustez” inplizitu bat daramate, bakarrik norberaren arabera ezagutu ahal dira, gustuen menpe egongo dira beti. Beste alde batetik, norbaitek “ablazioa ona da” estaen badu, honen kontra argudiatzen saiatuko gara, eta beraz ikusten da balio moraleekiko dugun jarrera egitateekiko dugun jarreraren antzekoa dela: oker edo erratuta egon gaithekeela uste dugu, iritziak zuzentzen ditugu, arrazoiak eman ahal ditugu gure balioak sostengatzeko...

Gustuak eta balio moralak ez diren balioak ere badaude, izaera argi bat ez dutena, adibidez, balio estetikoak. Nik “Michelangeloren *David* artelan bikaina da” esaten badut, iruditu daiteke lehen aipatutako izozkien iritzietara urbiltzen den baieztapen bat dela, baina norbaitek uste badu David ez dela hain bikaina, argudiaketaren bidez azaldu ahalko du. Honek erdigune bat erakusten digu, balio estetiko edo etikoen eremuan, non argudiaketaren eta justifikazioaren bidea irekitzen den. Kausu hauetan ezagutzak eta ulermenak arrazoiak ematen dituzte eztabaida bideratzeko, gustuen erresuman ezinezkoa dena.

Aipatutakoa kontuan hartuta, esan daiteke aurreko atalean aipatutako irudi diktomikoa zalantzarria dela, eta aproposagoa izango litzatekeela (ustezko) egitatei eta (ustezko) balioei buruzko baieztapenak jarraitasun batean kokatzea: mutur batean jarri ditzakegu adostasun gehiago lortzeko aukera duten baieztapenak edo **baieztapen objektiboak** (eguzkiak lurraren inguruan bira egiten du), eta bestean desadostasunak piztu ohi dituzten **gustu-baieztapenak** edo **baieztapen subjektiboak**. Azken finean, garrantzitsuena ez da baieztapen bat egitate edo balio diren, baizik eta hauekiko ze jarrera hartzen dugun. Antolaketa hau kontuan hartuta, esan daiteke baieztapen etiko eta estetikoak askotan uste baino objektiboagoak direla, objektibotasun maila absolutura iritsi gabe. Mutur bat objektibotasun maila maximoa kokatzen badugu, eta bestean minimoa, balioak erdigunean ibiliko dira.

Lehen aipatu dugun Wittgeinsten irudia, beraz, zurrunezia dela esan daiteke, alde batetik egitateen eta balioen arteko desberdintasunak ez direlako uste bezain argiak, eta bestetik, ez delako haien arteko hartu-emana kontuan hartzen. Harreman honen adibide gisa balio etikoak egitateen arabera aldatzen ditugula dugu: epaiketa baten gure sententzia erabaki baino lehen egitate guztiak ezagutu nahi ditugu. Balio eta egitateen arteko zubi hauek erakutsi dezakete Wittgeinstainen argazkia zorrotzegia dela.

3. Erlatibismoaren auzia: erlatibismoa eta pluralismoa

Gizakiak desberdinak gara, eta ondorioz, balioen gaian eta orokorrean gai guztietan desadostasunak izan ohi dira nagusi. Hala ere, historian zehar, desberdintasun eta

aniztasun hau errespetatu beharrean inposizioa nagusitu da, menperaketa, bestearen berekotasunaren zapalketa, intolerantzia. Honen aurka erlatibismoak desberdintasunak errespetatzea eskatzen du, desadostasun hau aldarrikatuz eta era guztietako nagusikeriak baztertuz. Adibidez, XV. eta XVI. mendean, mendebaldeko gizarteek beste lurralde asko inbaditu zituztenean, kultura berrien gaineko ezagutza eskuratu zen, honek dakartzan inplikazio denekin: ohitura berriak, balio etiko eta estetik berriak, egitura berriak... Batzuek aniztasun hau begi onez ikusten bazuten ere, gehiengoaren erantzuna desberdina dena basati gisa tratatzea izan zen, haiengan *kultura onargarría* inposatzea, natiboak esklabu gisa erabiltzea... erlatibismoa bertan sortu ez bazen ere, egoera honen konponbide gisa plateatu da. Erlatibismoaren jatorria Grezia Klasikoan aurkituko dugu, garai hartako pentsalariak defendatuko dutelako gauza bat ona edo txarra, gazia ala ez-gazia... izango dela pertsonaren *arabera*.

Erlatibistek defendatzen dutena, auzi kultural edo etikoetan aniztasuna dagoela, ukazina da, baina absolutistek argudiatuko dute aniztasun hori egon badagoela, baina ez lukeela egon beharko: absolutista batzuek esango dute moral erlijiosoa inposatu behar dela, utilitaristek esango dute haien irizpidea hoberena dela eta denetara aplikatu behar dela... auzi denetarako erantzun zuzen bakar bat dagoela. Erlatibismoak esango du aniztasuna aberasgarria dela, baina nola defendatu daiteke aniztasuna? Defentsa horrek mugak ditu? Aniztasunaren ikuspuntutik dena ona al da?

Alde batetik, argitu behar da desadostasunak gure eguneroko bizitzan behin eta berriro ematen badira ere, desadostasun guztiak ez dira berdinak: batzutan argi dago norbait oker dagoela (ni oker egongo naiz Txindoki Everest baino altuagoa dela eztabaidatzen badut), baina besteetan eztabaidak berak ez du zentzurik, ezin delako argitu (nik gorria berdea baino politagoa dela esaten badut, zuk ezingo duzu oker nagoela esan, zuretzak berdea politagoa den arren). Bi adibide hauek muturrekoak dira, eta askotan desadostasun konplexuenak erdibidean daudenean ematen dira: zer esan torturaren inguruko desadostasunen aurrean? Eztabaida honek ez du heldu-puntu zehatzik, eta gure argudiaketa bidea Txindoki-Everest kasuan emandakoaren antzekoa izango den arren (frogatu bhaiko dugu ni zuzen nabilela eta zu oker), kostata desegingo da. Lehen egindako bereizketarekin jarraituz, egitateen inguruko eztabaidak konpongarrienak dira, gustuenak zentzugabeenak, eta balioenak berriro ere erdian gelditzen dira.

Erlatibisten arabera, balioen inguruko desadostasunean aniztasuna nagusitu behar da, baieztapen denek *arabera* inplizitu bat daramaten heinean denak zuzenak izango direlako. Nik ablazioa debekatu behar dela badiot, eta zuk kontrakoa, erlatibisten arabera biak zuzenak izango dira, nik nire kulturatik hitz egiten dudalako eta zuk zuretik. Zu oker zaudela esango banuke, zure kultura baliogabeztatzen ari naiz, eta hori inbasio edo inposaketa mota bat izango litzateke.

Egia da erlatibismoa desadostasun mota batzuetan onargarría dela, gustuen auzietan, baina desadostasun moral gehienak ez daude maila berean. Batzuetan, norberaren edo kultura baten balioak uste faltsuetan oinarritzen dira: emakumeak biologikoki bigarren mailako izakiak dira, homosexualitatea gaitz psikologiko bat da, esklabutza ona da beltzak zuriak baino gutxiago direlako... kasu hauetan desadostasun moralaren oinarrian egitate faltsu bat dago, eta hori zuzenduko balitz, ez litzateke desadostasunik egongo. Beste kasu batzuetan desadostasunen oinarrian errakuntza moralak daude, Humek defendatu zuen bezala.

Petsalariaren arabera, moral erlijiosoak etikaren benetako helburuarekin (bizikidetzaz ahalik eta hoberean izatea) zerikusia ez duten ustezko bertuteak planteatzen ditu, apaizek sexu-harremanik ez izatea, adibidez, bestelako helburuekin: jainkoarekiko menpekotasuna, bizitza eternala... Oinarrizko errakuntza honek, moralaren helburutik haratago joateak, moral erlijiosoak oker egiten du, eta Humek bestelako kode moral desberdinak onartzen dituen arren, erlatibisten aurkakako jarrera duela esan daiteke.

Humen ikuspegia *pluralisten* ikuspegira hurbiltzen da: pluralistak onartuko du, erlatibistak bezala, aniztasuna beharrezkoa dela, baina aniztasun horri mugak edo *marra gorriak* jarriko dizkio. Erlatibismoa paralizaturik gelditzen da onartezinaren aurrean, ez du mekanismorik beste ikuspegietatik bereizteko, baina pluralismoak berriz bai. Pluralismoari esker desadostasunen aurrean arrazoiak eta justifikazioen espazioa irekitzen da, eztabaidaren bidez adostasunak lortzeko (edo ez), baina gutxienez *araberetara* ez mugatzeko.

(7. gaia: filosofia politikoa, + Taylor-Millan eranskina)

Politikaren gai nagusiak giza komunitatea, gizartea eta haren gobernu edo autoritatea dira, hau da, *giza ekintza* aztertzen da eta hau bideratzeko moduei buruz hausnartzen da. Aristotelesek, adibidez, politikaren erdigunean zorientasuna jarri zuen. Bere ustez, ekintza denek helburu jakin bat izango dute (ontzigintzan ontziolak egiten dira bidaia seguruak ziurtatzeko), eta jarduera horien gainetik dagoen helburua, beste helburuen menpe ez dagoena, zorientasuna izango da. Beraz, autore klasiko honen arabera, politikaren helburua berez gizartea zorientatu mantentzea izango da. Ikusi daitekenez, filosofia politikoak bereganatzen dituen gaiak oso bestelakoak izan daitezke, baina hauek dira oinarritzkoenak:

1. Autoritatea politikoa beharrezkoa da, eta hola bada, zer nolako boterea izan beharko luke? Zergatik ez gara natura egoera batean bizi?
2. Zein da gobernu motarik egokiena (diktadura, demokrazia...)?
3. Eskubidea al du inork beste pertsona bat, bere borondatearen aurka, legea betetzera behartzeko?
4. Nola lotu *balio politiko* ezberdinak? Murriztu daiteke askatasuna justiziaren izenean? eta berdintasuna autoritatearen izenean?

Galdera hauek filosofia politikoaren hasieratik erdigunean egon direnak dira, eta azken finean, horrela laburtu daitezke: filosofia politikoaren helburua askatasuna, berdintasuna, justizia eta autoritatea ezkontzeko modu bat aurkitzean datza. Hala ere, gaur egungo gizartean emandako hainbat fenomeno berri ikuspegi klasiko hauek birplanteatzera eraman gaituzte, hala nola, feminismoak, populazioa handitzeak, globalizazioak, kultura aniztasunak edota mugikortasunak.

1. Egoera naturaletik autoritate politikorantz: gobernuen auzia

Gaur egun, gobernu estatuak dira nagusi: biztanleek haien askatasuna mugatzen dute, obediencia maila batera konprometitzen dira, beharrezkoak zaizkien zerbitzuen edo babesaren truke. Gutxi gora bera, salbuespenak salbuespen (anarkismoa, adibidez), gaur egungo teoria politiko modernoek onartzen dute autoritate maila minimo bat beharrezkoa dela, adibidez, zigor-sistema bat kudeatzeaz arduratzen dena, eta eztabaida autoritate honen nolakotasuna erabakitzean sortu ohi da.

Lehenik eta behin, autoritatearen eta gizartearen arteko harremana nolakoa izan behar den erabaki behar da: ezin da soilik fideltasunean oinarritu (autoritate minimoa, gurasoek haien semeekin duten harremana bezala), ezta soilik beldurrean ere ez (autoritate maximoa, pistola bat duen lapur baten duen autoritatea bezala).

- **Autoritate minimoa.** Minimalistek edo autoritate minimoa defendatzen dutenek, gehien bat anarkistek, esango dute gizarteak ez duela autoritate politikoaren

premiarik zerbitzuak bermatzeaz gain. Anarkistek gobernurik gabeko gizartea iruditzen dute, non konfidantza maximoa den, eta beraz gizartea auto-erregulatzen den. Adibidez, Kroptin pentsalariak irudikatzen duen egoera, gizakia talde txikietan bizi da, non denok elkar ezagutzen duten, sentimenduek (besteenganako begiruneak, konfidantzak) jendea kontrolatzen duten, eta denon artean zerbitzuak antolatzen diren, baina ikuspegi honi hainbat kritika egin zaizkio. Alde batetik, egungo mugikortasunaren ondorioz talde txiki egonkorak eratzea ia ezinezkoa dela, eta beraz, *arrotzarekiko* mesfidantza nagusitzen dela komunitate gehienetan (etorkinen aurkako jarrerak honen erakusle dira). Beste alde batetik, anarkismoak gobernu ordezkatuz gizartea kontrolatzeko beste mekanismo batzuk proposatzen ditu, gizarte-presioa edo iritzi publikoa, baina gaur egungo gizarteetan hau ez litzateke nahikoa izango. Azkenik, ez da kontuan hartzen komunitate desberdinen arteko harremanak bideratzerakoan autoritate maila bat ia-beti beharrezkoa dela.

- **Autoritate maximoa.** Aipatutako anarkismoaren beste muturrean Thomas Hobbesen pentsamendua koka ditzakegu, *Leviathan* liburu klasikoan proposatzen dena. Autoreak hasteko autoritate politikorik gabeko egoera naturala irudikatzen du, non gure berezko izaeraren ondorioz, gerra egoera nagusitzen den. Gerra hau mesfidantzaren ondorioz sortzen da: ez dut uste besteen egin beharrekoa egingo dutenik, eta beraz, niri interesatzen zaidanaren bila abiatuko naiz. Hau ekiditzeko, gizarte hitzarmen baten bidez gizakia egoera naturaletik gobernu egoerara igaroko da, non banakoak *subirano* bati botere transferentzia bat egiten dion. Subirano honek autoritate politiko osoa izango du, bizitzaren esparru guztiak kontrolatuko ditu, jainko hilkorra izango da.

Anarkisten eta Hobbesen muturrezko ikuspegiaren artean pentsalari eskoziarrarena aurki ditzakegu. Bere ustez, gizakiak autoritate politikora jo du ez beste aukerarik ez zegoelako, baizik eta munduaren inguruabarrek horren premia sortu dutelako, hau da, justiziak autoritate politikoa eskatzen duelako. Autoritate politikoa konfidantzan oinarritzen den autoritateari gehitutako protesik bat izango da, fidelotasuna ez delako nahikoa.

2. Zein da gobernu formarik egokiena?

Orokorrean, gaur egun onartzen da demokrazia gobernu sistemarik egokiena dela, biztanleriaren zati handi batek politikan parte edo esku hartzeko aukera aurkezten duelako, baina horren gaineko galdera ugari egin daitezke: zer da zehazki parte hartzea? Zenbaterainokoa da esku hartze hori? Kontuan hartu behar da demokraziaren jatorrizko definizioetik hurbilen dagoen sistema demokrazia parte-hartzailea izango litzatekeela, baina gaur egungo sistemak berriz ordezkatzaileak dira, eta beraz erabakiak norbanakotik nahiko urrun gelditzen dira. Demokraziak gainera, bestelako hainbat arazo sortzen ditu: zer egin gehiengoak gizabanakoaren aurkako erabakiak hartzen baditu? Nola ezkondu gehiengoaren nahia gizanabanakoari zor zaion babesa ziurtatuz?

Esan bezala, gaur egun demokrazia defendatzea "estandarra" da, nekez aurkituko dugu modu irekian demokraziaren aurka dagoela onartzen duen norbait, baina hori ez da historian

zehir nagusitu izan den jarrera. Zergatik? Azter ditzagun pentsalari desberdinek planteatu izan dituzten gobernu motak, autoritatearen nozioa hobeto ulertzeko.

1. Platonen aristokrazia, demokraziaren aurka

Platonen *Errepublikan* autoritate politikoa pertsona gutxi batzuen eskuetan gelditzen da, bigarren maila batean ejerzitoa kokatzen da (botere betearazlea izango litzatekeena) eta azkenik ekoizleak, herri xumea. Hau mantentzeko hezkuntza sistema elitista bat proposatzen da, kasta sistema bat, non hezkuntza osoa soilik klase altuenari eskeinito zaion. Platonek aristokrazia bat proposatzen du: bere ustez, jakituria denon eskuetan egotea ezinezkoa denez, berdintasun politikoak galbidera garamatza. Autore honek gobernatzea trebetasun gisa ikusiko du, eta bestelako trebetasunak bezala, ezinezkoa da jende guztiaren esku egotea.

Esan beharra dago Platonek agintarien hezkuntza hiruko arimaren teorian oinarrituko duela, hiru arima moten artean (adimentsua, suminezkoa eta apetitiboa) aginteari adimena berezkoa zaiola defendatuz. Uste hau okerra izan daiteke, izan ere, posiblea da nazismoko agintari politikoak oso adimentsuak izatea, baina horrek ez du esan nahi agintari onak zirela esan nahi, gobernatzeko bestelako ezaugarri batzuk ere behar direlako. Beste alde batetik, Platonek esango du agintariak soilik jakingo dutela herriarentzat hobereena zer den, herriari hitza emanez gero ez dagoelako argi berarentzat hobereena dena egingo lukeen, maila pertsonal eta orokorrak nahastu ahal direlako.

2. Hobbesen tirania

Hobbesek defendatzen du autoritate politikoa bideratzeko aukerarik hobereena tirania dela, hau da, subirano bakarraren sistema. Lockek leporatu zion egoera naturaletik gobernu mota honetara salto egitea txarretik okerrenera joatea zela, baina Hobbesek defendatuko du subiranoa berez justua dela eta banakoarentzat hobereena dena egingo duela. Hala ere, arazoa bermeetan dago, ezin delako bermatu kontrol osoa duen eta inork kontrolatu ezin duen figura batek bere boterea ondo erabiliko duenik.

3. Rousseau eta nahimen orokorra

Platonek bezala Rousseauk politikaren erdigunean hezkuntzaren gaia kokatuko du, baina kasu honetan jendeak bere interes pertsonaletik aldentu eta interes orokorretara jauzia egiteko beharrezkoa delako, bere burua *nahimen orokorraren* zati giza ulertzeko. Horrela, jendeak ardura handiz jokatuko du hitza ematen zaionean, interes orokorrari begira mintzatuko delako. Egoera hau lortzen denean, Rousseauk legeen eraketari dagokionez demokrazia ezin parte-hartzaileago bat defendatuko du, legeen aplikazioaz edo kudeaketaz gutxienengo bat (gobernua) arduratuko den arren. Rousseauk defendatzen duen sisteman ez dago klaserik, berdintasuna muturrera eramango da, soilik egoera honek berma dezakeelako *nahimen orokorra* existituko dela. Aipatu behar da Rousseauen sisteman emakumeak ez direla benetako herritarrik kontsideratzen, Mary Wollstonecraftek salatu zuen bezala.

Rousseauren pentsamenduan kontzepturik garrantzitsuena lehen aipatutako *nahimen* orokorra da, hau da, taldearen nahimena, taldea banako bakar gisa kontsideratuta. Taldearen interesa ezin da interes pertsonalen batura izan, orduan gatazkaz beteta egongo litzatekeelako: interes pertsonalek men egin behar dute interes orokorren aurrean. Hau lortzeko, lehen aipatutako hezkuntza berebiziko garrantzia duen tresna izango da, baita erlijioa ere. Batzuen ustetak, nahimen orokorraren ideia honek herriaren tirania bat estaltzen du, norberaren askatasuna mugatzen delako komunitatearen izenean. Autore honi egin zaion kritika garrantzitsuean askatasunaren ingurukoa izan ohi da, izan ere, nahimen orokorraren existentzia onartzen badugu, askatasuna soilik norberak bere buruari inposatzen dizkion legeak *obeditzeko-askatasuna* baino ez da izango.

4. Demokrazia

Demokrazia bi printzipiotan oinarritzen da: autoritateari dagokionez jaiotzez ez dago inor inoren gainetik, eta autoritatea beti herriarena da. Badirudi printzipio hauei jarraitzeko biderik aproposena demokrazia zuzena dela, baina lehen aipatu bezala, gaur egun gaintzen den sistema demokrazia ordezkatzailerik da. Zergatik?

- Arazo praktikoak, zaila da jende guztia elkartzea eztabaidak izateko, aukerak proposatzeko eta erabakiak hartzeko.
- Argudiatzen da jendeak ez duela erabaki politikoak hartzeko prestakuntza nahikorik. Erabaki hauek hiru osagai edo alderdi dituzte: erabaki behar denaren inguruko egitate-informazioa, jendearen lehentasunak, eta erabakiaren printzipio orokorrak (moralak, kulturalak, historikoak...). Normalean, arazoa lehenengo alderdiarekin lotzen da, esaten delako jendeak ez duelako gai gehienek gaineko informazio nahikorik.
- Erabakien aplikazioa beste arazo bat izan daiteke, ezin delako bermatu hartutako erabakiak txoko guztietan beteko direnik. Rousseauk, adibidez, gutxi batzuen eskutan kokatuko du ardura hau, baina horrek demokrazia zuzenaren izaera bera kolokan jarri dezake.

Arazo hauek ikusita, hainbat pentsalarik demokrazia ordezkatzailerik alde egin dute, non herritarrek ordezkari batzuk bozkatzeko dituzten, eta hauek legeak egin eta betearazteaz arduratzen diren. Sistema honen defendatzaileetako bat John Stuart Mill da, baina esperientziatik hitz eginez, sistema honek izan ditzakeen hainbat arazo ere planteatzen ditu. Alde batetik, esango du ordezkariak ustelkeriarako tendentzia izan dezaketeela, eta hau ekiditzeko, dirurik ez jasotzea proposatuko du. Bigarren kezkak bozemailearekin zerikusia du, bere ustez, ezinezkoa delako bermatzea bozemaileak denon interesak kontuan hartuta bozkatuko duela, eta horretarako, gaur egun onartezinak diren hainbat neurri proposatzen ditu, hala nola, anafabetoen botorako eskubidea kuestionatzea. Hirugarren kezka, eta nagusia, demokrazia gehiengoaren tirania bihurtzea da, minorien aurka jotzea.

Esperientzian oinarrituta ere ikusi daiteke demokrazia ordezkatzailerik beste arrisku nabarmen bat duela, izan ere, gizartea pobretzeko edo ahultzeko joera du. Jendearen eginkizun bakarria lau urtetan behin bozkatzeko denean, *idiotia* bihurtzeko tendentzia dugu.

3. Justizia

Justizia, balio politiko gisa, edozein teoria politikoren erdigunean kokatzen da beti, edozein instituziok eta pertsonak izan behar duen baliorea kontsideratzen da, eta autoritate politikoa justifikatzeko arrazoi nagusia da. Hala ere, zaila da justizia zer den zehaztea, hainbat alderdi dituelako, baina atal honetan hurrengo galderaz arduratuko gara: *zeren arabera banatzen dira pertsonen artean munduan dauden eta sortzen diren ondasunak?*

Lehenik eta behin, justizia definitzeko egin diren saiakerak aipatu behar dira. Justinianok zihoen justizia dela *bakoitzari dagokiona emateko ahalegin konstantea eta iraunkorra*, beraz justizia berdintasunarekin eta uniformetasunarekin lotu zuen, legeak bermatzen duena. Justizia meritu/sari edo zigor/sari bikoteei lotzen bazaie, beste alde batetik, proportzionaltasunetik hurbilago egongo da. Stuart Millek, *Utilitarismoa* liburuaren 5. kapituluaren justiziaren edo injustiziaren zenbait alderdi edo ertz bereizten ditu: justizia pertsonen berezko eskubideen errespetu gisa, justizia pertsonen eskubide moralen errespetu gisa, justizia merituen ordain gisa, injustizia da emandako hitza ez betetzea, partzialtasuna ez dator bat justiziarekin, eta berdintasuna justiziaren alderdi garrantzitsuenetarikoa da. Argi dago denok daukagula justiziaren ideia intuitibo bat, oinarri bat, baina oinarri horretatik abiatuz teoria edo ikuskera koherente bat eraikitzea ez da lan erraza, izan ere, filosofia politikoaren helburuetariko bat da.

Hasieran egindako galderarekin jarraituz, eta gure inguruan nagusi den desberdintasunari erreparatuz, justiziarekin zerikusia duen auzi garrantzitsuenetarikoa ondasunen banaketa dela ondorioztatuko dugu. Lur planetan zailtasunez aurkituko dugu jabegorik ez duen lur zatirik, baina zilegia al da jabetza hau? Lockek jabetza defendatzeko argudio asko eman zituen, adibidez, lana lurrarekin nahasten denean lurra lana burutu duen pertsonarena dela, baina honen aurka, Pierre-Joseph Proudhon anarkistak esan zuen, jabegoaren auzia jatorrizko egoera batetik justifikatzeko saikeran. Hala ere, gaur egungo egoera kontuan hartuta, kontua ez da jabetzaren jatorria aztertzea, baizik eta jabegoaren auzia aztertzea ondasunen mugimenduaren eta banaketaren auziaren baitan. Hau arakatzen duten hainbat sistema daude:

- **Kapitalismoa:** Egun mendebaldeko gizartean merkatu libreko sistema kapitalista batean bizi gara, honen eredu garbia jarraitzen ez den arren. Merkatu askearen sistemak hurrengo ezaugarriak ditu: lurraren lehengaien eta bestelako ondasunen jabegoa gizabanakoen eta enpresen esku dago, ondasunak etekinak lortzeko ekoizten dira, ondasunen banaketa borondatezko trukaketen bidez egiten da, eta edonork ekoiztu eta saldu dezake edozein produktu. Sistema askatasuna eredu-ekonomikoaren oinarrian kokatzen da. Sistema hau defendatzen dutenek esango dute ongizaterik handiena merkatu-libreak ekarri duela, baina kritikoek baieztapen hau zalantzen jartzeaz gain argudiatuko dute merkatu librea xahutzailea izateaz gainera, esplotatzailea eta desberdintasun ikaragarriren sortzailea dela, alegia, injustua dela.

- **Marx eta Engelsen sistema:** Kapitalismoak eskaintzen duen askatasuna (zentzu negatiboan) murrizteko goitik behera planifikatua dagoen sistema da, Marx eta Engelsek ideiekin lotzen dena. Sistema honen ezaugarriak hurrengoak dira: herriaren izenean autoritate politikoak edo estatuak lehengaien eta ondasunen jabegoaren kontrola dauka, ondasunak premiak asebetetzeko ekoizten dira, ondasunen banaketa planifikaturik dago, eta autoritate politikoak erabakitzen du nork zer, noiz eta nola ekoiztu behar duen. Kasu honetan, autoritate politikoak planifikazio zorrotzaren bidez askatasuna mugatu nahi du.

Bi muturrezko ideologia hauen artean ondasunen banaketei buruz aritu diren beste hainbat ideologia daude: anarko-liberalismoa (aukera berdintasuna eta meritukrazia lehenetsi behar dira), sozialdemokrazia (ondasun batzuk berdintasunean banatu behar dira, besteak premiaren arabera, eta besteak merituen arabera)...

Mapa honen testuinguruan, John Rawlsek *Justiziaren teoria bat* liburuan bere proposamena josi zuen, justiziari kontzeptu zehar gisa heltzeko. Rawlsek berriro ere gizarte-hitzarmen bat proposatuko du, baina kasu honetan, balizko berdintasun egoera batean egiten dena, non inork ez duen jakingo zer nolako kokapen soziala izango duen (maila ekonomikoa, arraza, generoa...). Rawlsek ondorioztatzen du hurrengo hiru printzipioak adostuko liratekeela:

1. Gizarkeko kide bakoitzari eman behar zaio oinarritzko askatasun multzo ahalik eta zabalena.
2. Berdintasunaren printzipioa, edozein gizarte kokapenetara iristeko aukera-berdintasuna bermatzen duena.
3. Desberdintasunaren printzipioa, aurreko printzipioak ez dakarrelako norbanakoen arteko berdintasuna dire sarreretan edo ondasunetan. Printzipio honen arabera erdu ekonomiko egokienak pobreen maila ekonomiko altuena ziurtatzen duena izango litzateke, non jendea ez den pobreen egoera okertuz aberasten.

Rawlsten arabera, ezjakintasun-estalkipean daudenek printzipio hauek adostuko dituzte arrazionalki eztabaidatuz, norberaren arriskua minimizatzen dutelako. Erabaki ahalko litzateke gutzizko askatasun egoera bat ematea, aberastasun osora iristeko aukerarekin, baina inork ez du ziurtatuko zure egoerak aberastasuna lortzea utziko dizun. Beste irtenbide bat utilitarista izango litzateke, non gehiengoaren zorientasuna ziurtatzen den, baina nork esaten du gehiengoaren zorientasun hori bermatzeko zure eskubideak murriztuko ez direnik?

4. Harriet Taylor eta Stuart Millen ekarpena pentsamendu feministan

Atal honetan, *Gogoeta-bide irekiak* liburutik ateratakoan, Harriet Taylorren *Emakumeen askapena* (1851) eta John Stuart Millen *Emakumeen menpekotasuna* (1869) testuak komentatuko ditugu. Egia da lan hauek baino lehen argitaratutako testu feministak

badaudela, baina kasu hauetan, inoiz landu ez ziren gai ugari proposatzen dira, eta haien inguruko argudio oso interesgarriak ematen dira. Aipatu behar da Taylor eta Millek harreman goraberatsua izan zutela, senar-emazte izatera ere heldu ziren, eta haien bizitzan zehar, ikuspegi feminista hau errealitatera eramateko saiakerak egin zituztela: Millek, Taylorren laguntzarekin, Erresuma Batuko *Komunen Ganbarara* eraman zuen sufragio unibertsalaren auzia, 72 urte geroago onartu zena. Azterketa hau egiteko, hainbat atal bereiztuko ditugu:

1. Emakumeen menpekotasun egoera justifika zezaketen argudioei kritika

Millek bere obran emakumeen menpekotasuna justifikatzeko erabili izan diren argudioak ahultzeko saiakera egin zuen, menpekotasun hori arbitrarioa dela erakusteko haien ustez, emakumearen egoerak justifikaziorik ez duen heinean justiziaren aurkakoa delako. Mill-Taylorren helburuaikuspuntu etiko-politiko batetik aurrerapausoak ematea da, zeharkako eta argudiozko ibilbidea eginez: aurkaria konbentzitu nahi dute bere argudioen ahulezia agerian jarritz.

- *Lehenengo argudioa: menpekotasun egoera naturala da.*

Lehenengo argudio honek esango du emakumearen berezko egoera unibertsala menpekotasuneko dela, leku eta garai guztietan *ohikoa* delako. Millek esango du ezin dela ohikoa dena eta naturala dena berdindu, eta horretarako menpekotasun honen genealogia egingo du. Egia izan daiteke menpekotasun hau hasieran egitate batean oinarritu izana (emakumeak indar gutxiago izatea, adibidez), baina gaur egun gizartean errotuta dauden joera “naturalak” (edertasunarekin obsesioa, otzana eta esanekoa izatea), oso errotuta egon arren, ez dira egitateetan oinarritzen. Beraz, esango du emakumearen menpekotasun hau ez dela berez naturala, ohitura den arren.

Ohiturei dagokienez, Millekk “ohituren hegemoniaren garaia” aipatuko du, bere ustez ohiturak ukaezinak bihurtu direlako. Zenbaitetan emakumearen menpekotasunaren ohitura justifikatzeko esaten da emakumeen egoera hori onartzen dutela, baina Millen arabera, arazoa da emakumeen ahotsak entzun beharrean isildu eta zigortzen direla. Taylorrek, argudioa haratago eramanda, De la Boetieren *borondatzeko murrontzaren* antzeko egoera irudikatzen du, hau da, esango du agian emakumeek aldaketari beldur diotela, baina horrek ez duela esan nahi menpekotasun egoeran gustora daudenik. Auzi soziologiko-psikologiko honetaz gain, Taylorren arabera arazo larriena emakumeek aukeratzeko ezintasuna dutela da, hau da, legearen arabera ezin dutela menpekotasuna ukatu. Jatorrizko argudioak defendatuko du emakumeak emazte eta ama bihurtzen direla modu naturalean, baina orduan, zergatik daude hori ziurtatzeko balio duten legeak?

Aurreko guztia kontuan izanda, egoera natural baten aurrean baino ohituren aurrean gaude, eta zaila izan arren, ohitura guztiak aldatu ahal dira. Millek eta Taylorrek deskribatzen dute ohitura hori nola garatu eta ainguratu den, besteak beste, hezkuntza eta lege sistemen laguntzaz. Gainera, Taylor Mill baino baikorragoa izango da, eta esango du haien garaian ohiturak gainberan doazela, eta beraz, emakumeen berdintasuna gero eta hurbilago dagoela.

- *Bigarren argudioa: menpekotasun-egoera gizadiaren ikuspuntutik onena da.*

Tesi hau enpirikoa da, hau da, esperientza historikoan edo soziologikoan oinarritzen da. Argudio hau utilitarista kontsideratu daiteke (denon ongizatea lehenesten du), baina korrante honen defendatzaile klasikoa den Millek esango du ez dagoela inongo froga enpirikorik premisa horretara iristeko. Kontuan hartuta Millek disziplina zientifiko eta sozialen alderdi metodologikoan ere arakatu zuela, bere kexa gehien bat metodologikoa da: zeren edo noren izenean baieztatzen da menpekotasun egoera haugizartearentzat hobea dela? Gizarteak ezin izan du bi egoeraren arteko konparazioa egin, menpekotasun egoera eman da beti, beraz, argudio hau sostengatzeko beharrezko ikerketa ezin izan da inoiz egin. Izan ere, egoera alternatiboan, hau da, ez-menpekotasun-egoeran zeintzuk lirakekeen onurak eta kalteak ebaluatzeko aukerarik ez da egon.

- *Hirugarren argudioa: menpekotasun-egoera gizonezkoen eta emakumezkoen naturaren edo sexuen arteko bereizketan oinarritzen da.*

Argudio hay Mill-Taylorrek sakontasun handienaz aztertzen dutena da. Argudio honek ondorioztatu nahi du sexu bakoitzeko kideek gizartean duten lekua egokiena dela haien ezaugarriak kontuan hartuta, hau da, pertsona baten funtzio, kokapen eta espektatibak bere sexuari (edo naturari) lotzen zaizkiola. Egungo terminologia erabiliz, esango genuke sexuak generoa determinatzen duela, generotzat hartzen badugu pertsona batek gure gizartean dituen eginbehar, kokapen eta espektatiben bilduma. Bestalde, sexuak edo "naturak" pertsona bakoitzaren barne ezaugarriari erreferentzia egiten die, zeregin edo rol sozialak gogora ekarri gabe definitu ahal direnak. Millek, modu desberdin askotan natura hau aztertu ondoren, ondorioztatuko du edonola ulertuta ere naturak ez duela menpekotasun egoera justifikatzen.

Lehen aipatu bezala, Millek ez du ukatzen gizonen eta emakumeen ustezko berezko natura aztertu nahi duen ikerketa egin behar denik, are gehiago, hau egiteko psikologiaren adar bat proposatuko du: zirkunstantziek nortasunean nola eragiten duten aztertzen duen adarra. Hau egiteko hurrengo metodoa proposatuko du: hezkuntzaren edo kanpo zirkunstantzien karira azaltzen diren ezaugarriak kenduz gero, geratzen direnak, hau da, geratzen den hondarra, izango dira berezko naturaren parte.

Kontuak kontu, Millek ondorioztatuko du ez dagoela emakumeen berezko joera komununa deitu daitekeen ezer, ez dagoela gizonen eta emakumeen gizartean betzen dituzten rola determinatzen duen naturarik. Argudio honen ahulezia agerian uzteaz gain, Millek azalpen alternatibo bat proposatuko du: gizonen eta emakumeen eginbehar, kokapen eta ezaugarriak finkatzen dira ingurumariaren edo pertsona bakoitzak jasotzen duen hezkuntzaren arabera direla. Emakumeen menpekotasun-egoerak berak ekiditzen du gizartean haien zat erreserbatu ez den rolik izatea, eta hau naturak azaldu beharrean, ikerketa historiko-psikologiko-soziologiko batek azaldu dezake. Millek emakumeen ezaugarri, rol edo espektatibak aztertzen ditu menpekotasun-egoera oinarri gisa hartuz. Egoera honen alderdi nagusia emakumeen duten etengabeko jardura da (etxearen zaintza, seme-alaben haziera, gizonentzako erakargarriak agertzea), eta honek determinatzen du genero femeninoa deitzen duguna. Hortaz, genero femeninoa definitzeko, "berezko natura" bezalako kontzeptuak ez du lekurik.

Taylorrek emakumeen menpekotasun egoera justifikatu nahi duten argudioen laburpena egiten du, eta gogoratzen digu egoera azaldu beharrean onartzeko balio dutela. Alde batetik amantasuna aipatzen du, ustez emakumeak mundu laboralean lekua izatea ekiditzen duelako, eta Taylorrek dio emakumeak betidanik aukeratu izan behar duela ama izan edo ezer ez izatearen artean. Hala ere, argudio honek ez du zentzurik, ama ez izatea erabakitzen duten emakumeek ere zailtasunak dituztelako gizonen dituzten aukeretara heltzeko. Beste bi argudioek emakumea eremu publikora iristeak ekarriko lituzkeen arriskueta oinarritzen dira: lehiakortasun handiegia egongo litzateke eta emakumearen berezko izaera gogortuko litzateke. Azken bi argudioek oinarritzeko premisa emakumeek gizonen lekua lapurtuko dutelaren ideian oinarritzen da, eta horregatik, berez menpekotasun-egoera bat onartzen dutenez, ez dira egoera hori justifikatzeko balioarriak.

2. Berdintasun egoera zuzenean justifikatzen duten argudioak

Atal honetan Mill-Taylorrek ematen dituzten beste argudio batzuetan arakatuko dugu, zehazki, menpekotasun egoeraren aurka zuzen-zuzenean egiten duten argudioetara. Bi autore hauek usteko dute moralki zuzena dela emakumearen menpekotasun egoerarekin bukatzea, bi lelo hauen defentsan: utilitarismoa eta gizabanakoaren askatasunaren aldarrikapena. Hauek dira bi argudio aipagarrienak:

- Alde batetik, menpekotasun egoera honek gizonen eta emakumeen harremanetan izan ditzakeen ondorioetatik arituko dira. Millek defendatuko du mutiko izateak gizon guztiek uste dutela gizateriaren erdiaren gainetik daudela soilik gizon jaio izanagatik, eta horrek nahitaez eragin kaltegarria duela harremnatzeko orduan. Hau ilustratzeko ez dute muturreko biolentzia kasuetara jotzen, baizik eta eguneroko bizitzako egoeretara. Egia da kalte mota hau sistematikoa izateaz gain kasuz kasukoa dela onartzen duela, baina horrek ez du kentzen genero guztietako pertsonentzat kaltegarria denik.
- Bigarren argudioak kutsu utilitarista du: menpekotasun egoera alde batera uzteak gizateriaren erdiaren garapen intelektuala sustatuko luke. Horrela, emakumeek gizartearentzat onuragarriak diren ekarpenak egiteko gaitasuna izateaz gain, gizonen ere haien adimena garatuko lukete, eskakizun maila handiagoa izango litzatekeelako.
- Hirugarren argudioak askatasunaren ikuspegitik kritikatzeko du menpekotasun-egoera. Kontuan hartuta bai Millek bait Taylorrek haien pentsamendu liberalaren oinarrian kokatzen dutela askatasuna, argi defendatuko dute emakumeen askatasuna mugatzea ikuspuntu moral batetatik guztiz onartezina dela.

Artea eta artelanak giza-ekintzaren emaitza mota berezi bezala ezaugarritu daitezke. Artea unibertsa da, gizakia gizakia denetik existitzen da kultura guztietan, baina hala ere, zaila da honen inguruko galderak erantzutea, filosofiaren hainbat esparrutan arakutzen dutenak: zer da artea? Zeintzuk dira bere ezaugarriak? Artearen inguruan sortzen den beste galdera ohiko bat bere *balioaren* ingurukoa da, beste giza-ekintzek ez bezala, artelanen balioa ez delako beste helburu bati begira finkatzen. Arteak balioa bere baitan du, ez dago bere burutik harantzago dagoen edozerren menpe, bestelako balioak ere izan ahal baditu ere (arte batek prezioa izan dezake, apaingarria izan daiteke...). Gai honen helburua artearen inguruko galdera korapilatsuak argitzea izango da, filosofian maiz gertatzen den bezala, lainoz betetako auzia da eta.

1. Zer da artea?

Zer da artea? Lev Tolstoi artistak idatzitako obraren izenburua da, bere garaian artea kontsideratzen zena artea ez dela salatzeko idatzi zena. Tolstoiek ez zuen ulertzen, adibidez, Baudelaireren poesia artelantzat hartzea, eta bere burua egoera horren aurrean ikusita, auziari errotik heltzea erabaki zuen, artearen definizioa emanez, edo gutxienez hori egiten saiatzen da.

Alde batetik, Tolstoiren egoera ulergarria da, ohikoa baita artelan baten aurrean gauden ala ez zehaztea. Artearen eremua beti zabaltzen doa, arteak bere burua behin eta berriro itxuraldatzen duelako: zer esango luke grezia klasikoko biztanle bateik Picassoren *Gernika* artelanaz? Edo Duchampen *Pixatokiaz*? Guk arteari balioa ematen diogun heinean, eta artea beti aldatzen eta garatzen doan heinean, nola zehaztu dezakegu zer den artea, eta zer den arte *ona*? Artean ere badaude eszeptikoak, argudiaketa bide hau jarraitzen dutenak: zerbait definitzean bere izaera mugatzen bada, eta artea beti aldatzen dagoen heinean mugaezina bada, orduan artea ezin da definitu. Hala ere, artea definitzeko saiakera asko ere egin dira, argudiaketa bide desberdinak erabiliz.

a) **Artea eta intentzionalitatea**

Platonen ustez, artea (drama eta poesia gehien bat) imitazio edo *nímesis* jarduera zela, eta arriskutsua zela emozioekin jolasteko aukera ematen zuelako. Aristotelesek antzeko ikuskera zuen, baina arriskutsua baizik artea *katartikoa* zela esan zuen (emozioak garbitzeko aukera aurkeztzen duela), eta horregatik, honek hezkuntzan izan beharko lukeen rola aldarrikatu zuen.

Garbi dago imitatzeak ez duela zerbait arte bihurtzen, nik lehendakaria imitatu dezaket eta horrek ez du nire interpretazioa arte bihurtzen, baina beharrezko ezaugarria al da? Gaur egungo mugimenduei erreparatuz, erantzuna baiezkoa da: arte abstraktuak, kubismoak edo surrealismoak ez dute errealitatea imitatzen. Horregatik, antzeratze kontzeptua erabili beharrean batzuek irudikatu edo errepresentatu kontzeptuak defendatu dituzte, baina

orduan, ez dira kontuan hartzen ezer imitatzen ez duten abestiak edo ariketak baino ez diren poemak. Hauek kontuan hartzeko, definizioa gehiago fintzeko, esaten da arteak zerbaiti erreferentzia egiten diola, intenzionala dela, zerbaiti buruzkoa.

Adibidei erreparatuz, ideia hau hobeto ulertu daiteke. Lehen aipatutako Duchampen *Iturriak* edo *Pixatokiak* ez du errealitatea irudikatzen edo errepresentatzen, baina zerbaiti buruzkoa da. Artelan bat den heinean zerbaiti erreferentzia egiten dio, kasu honetan, esaten da obra hau arteari berari buruzkoa dela, artean esku-lana beharrezkoa ez dela aldarrikatzeko sortua izan zen. Artearen definizio honen arabera, artea interpretagarria izatea da bere nahitaezko baldintza, hurrengo argudiaketa jarraituz:

(P1) Obra oro interpretagarria da

(P2) Zerbait interpretagarria bada, zerbaiti buruzkoa da (intenzionala da)

(O) Beraz, obra oro zerbaiti buruzkoa da (intenzionala da)

Intenzionalitatearen ideia hau Platon eta Aristotelesen ideien garapen gisa ulertu daiteke. Artea intenzional gisa ulertzeak kontzeptu honen aplikazioa asko zabaltzen du, gehien bat hasierako imitazioak eskaintzen zuena kontuan hartzen badugu, baina horrek ez du kentzen intenzionala ez den musika edo arkitektura egon badagoela.

b) Artea atsegin iturri gisa. Artea eta esperientzia estetikoa. XVIII. mendean Charles Batteauxek esan zuen arte ederrek atsegina dakartela, eta natura ederra antzeraten dutela. Argi dago atsegina artea ez diren ekintza askok ekartzen dutela, baina kasu honetan, artearekin lotzen den atseginak gogo-egoera konkretu batzuei egiten die erreferentzia, esperientzia estetikoari, alegia. Artearen gaineko gogoeta egiteaz arduratzen den disziplinari estetika (*aisthesis*, zentzumen-hautematea edo hautemate-kognitiboa grekeraz) deitzen zaio sarritan, eta azken finean, gizakiek lanei edo gauzei egiten diegun harrerari egiten dio erreferentzia. Hortaz, badirudi artearen filosofiak onartzen duela arteak guregan eragiteko gaitasuna duela, guregan esperientzia estetikoa eragiteko sortuak izan direla.

Artearen definizio honek hainbat arazo ditu. Artea esperientzia estetikoa sortzeko gaiatsunarekin lotzen bada, Duchampen *Iturria* ez litzateke artelan kontsideratuko, eta batzuk ondorio horrekin pozik egongo balira ere, argi dago ez duela artearen historiari justizia egiteko balio. Tolstoik, beste alde batetik, beste mota batetako kritika bat egin zion artea ulertzeko modu honi: artearen ezaugarritze hau onartzen badugu, artea gustu kontua bihurtzen da, edertasunaren esperientzia norbanakoaren arabera da eta. Tolstoik ez du onartzen arte kontuak gustuen menpe daudenik, bere ustez, arteak baduelako objektibotasun maila bat.

c) Tolstoiren ikuspegia. Artea adierazpide gisa. Tolstoiren arabera, artelanak sortzailea eta hartzailea harremanetan jartzen ditu, erromantizismoaren ideiarri jarraikiz. Korrante honek artistaren emozioak artelanaren erdigunean jartzen ditu, eta artearen helburua bihurtzen du artistaren barruko mundua adieraztea. Hau azaltzeko Tolstoik artearen eta hizkuntzaren arteko analogia egiten du: biek komunikatzeko balio dute, hizkuntzak pentsamenduak igortzen ditu eta arteak sentimenduak. Azken

buruan, mugimendu, lerro, kolore edo soinuen bidez gure baitako sentimenduak adieratzen dira, eta Tolstoen esanetan, honek gizadiaren eta norbanakoaren onerako balio du. Sortzialeak, artelanak eta hartzaileak gauzatzen duten komunikazioa izango da, beraz, Tolsoiren iritzian artearen nahitaezko ezaugarria, eta horregatik kritikatu du bere garaiko artea: hutsala da berarentzat, dena apaingarria, ez duelako ezer komunikatzen. Ortega y Gasset pentsalariak antzeko diagnostikoa egingo du, defendatuko du artea gizakiaren izaeratik eta premietatik askatu dela, baina Tolstoi ez bezala garapen hau positibotzat hartuko du.

Tolstoiren planteamenduak, azaldutako denek bezala, arazoak ere baditu. Demagun norbaitek bere sentimenduak transmititzeko helburuarekin garrasi egiten duela, eta besteek haserre edo triste dagoela ulertzen dutela: hori, sentimenduak komunikatzeko bide izanda, ez da artea. Beraz, argi gelditzen da sentimenduak adieraztea ez dela baldintza nahikoa artelan baten aurrean gaudela zehazteko. Gainera, posible da artelan batek artistak ez duen sentimendu bat transmititzea, adibidez, aktore baten kasuan, edo koloreen konbinazio hutsa den artelan batek ezer ez komunikatzea. Agian arazo denak komunikazio hitza zentzu zabalago batean ulertuz konpondu daitezke, baina horrek esan beharko luke dena artea dela, gauza orok duelako neurri batean edo bestean edozerrek edozer komunikatu dezakelako. Dударik gabe, Tolstoi konponbide honen aurka egongo litzateke.

d) Artearen teoria instituzionala. Jerrold Levinson eta George Dickiek *teoria instituzionala* deritzona defendatu dute, eta honen arabera, arte-munduak erabakitzen du zerbait artelan bat den ala ez. Arte mundu honen barruak museoak, galeriak, kazetariak, produktoreak, kritikariak, historialariak... daude, eta konplexua izan daitekeen prozesu baten ondorioz, giza ekoizpen bat artea izendatu dezakete edo ez. Honek artearen historiaren aldaeraren aurrean arte nozioaren lekua azaltzea lortzen du, baina maila sakonagoa batean, ez du azaltzen zerk egiten duen artelan bat artelan. Interesgarria izango litzateke jakitea ze justifikazio edo arrazoi ematen dituen arte-munduak, baina hortan sakontzen ez denez, teoria instituzional honek ez ditu irtenbiderik proposatzen.

Ikus daitekeen bezala, aurkeztutako definizio-saiakera denek arazoak dituzte. Batzuk estuegiak dira, ez dute arte guztia bereganatzeko gaitasunik, eta beste batzuk berriz, zabalegiak izanagatik hutsalak suertatzen dira. Gainera, definizio oro garai bateko artelanetan oinarritzen da, eta hortik beste garaietara aplikatzerakoan, artelan askoren izaera eraldatu edo faltsutzerara behartzen dute.

Honen irtenbide bat artea definitu ezin den kontzeptu bat dela onartzea da, eta gehien jota, artelanen arteko ezaugarri komunetan erreparatzea, baina kontua da ez dagoela artelan denak lotzeko balio duen ezaugarriarik. Beste irtenbide batek artea definitzeko erronka alde batera uztea defendatzen du, eta hori egin beharrean, artearen kategoriak ezaugarritzean. Horrela, literatura, margogintza edo eskultura bezalako esparruetan oinarrituz, errazagoa izango da artelan individual bakoitza sailkatzea, kritikatzeko edo balioztatzea. Gainera, kategorien teoriak onartuko du hauek denborarekin aldatzea, edota berriak sortzea, eta artearen historian emandako prozesuak azaltzeko gai izango da.

2. Artea eta moralak

Artea balio estetikoaren erresuma nagusia den heinean, askotan aldarrikatu izan da balio estetikoak soilik kontuan hartu behar direla artea balioztatzean, Oscar Wildek esan bezala: liburuak gaizki edo ondo idatzita daude, ez dago moralki ona edo txarra den libururik. Hau defendatzeko esan ohi da balio etikoak artearekin nahastean zentsurari ateak irekitzen zaizkiola, baina hain txarra al da hori? Demagun nik frantseseko abesti bat oso gustuko dudala, baina nik ez dudala frantsesik ulertzen, eta egun batean, abesti horren letra bilatu ondoren, ikusten dut emakumearen kontarko bortitzkeria oso presente dagoela. Balio etikoaren izenean abestia desberdin epaitzea artearen autonomiaren aurkakoa izango litzateke? Beste pertsona batzuk abestia ez entzuteaz konbentzitzea zentsura izango litzateke? Askotan, garai desberdinetako obra klasikoak kritikatzeko dira gaur egungo balio sozial eta moralak erabiliz (homofoboak dira, pederastiaren apologia egiten dute, arrazistak dira...), baina horrek esan nahi du klasikoak zentsuratu behar direnik?

Poesiari dagokionez, Platon artearen autonomiaren aurka agertzen da, bere ustez, poesiak hezkuntzan izan beharko lukeen lekua betetzeko politikoki zuzena izan behar duelako. Beraz, bere garaiko poesiaren aurkakoa izango da, eta gobernatzeko onak ez diren balioak goraiatzeko dituen heinean, poesia lanak zentsuratzeko prest agertzen da. Platonen planteamendua eztabaidagarria bada ere, historian zehar artearen autonomiaren aurkako ikuspegiak egon direla ikusteko balio du. Hala ere, Platonen ikuspegia alde batera utzita, gaur egun nagusitzen den ikuspegiak defendatuko du artea bestelako balio guztietatik libre utzi eta babestu behar den esparrua dela. Esperientzia estetikoak sortzea artearen helburu bakarra da, eta beraz, horri bakarrik erreparatu behar zaio arteari buruz hitz egiterakoan. Gainera, badaude inongo aztarna etiko-politikorik ez duten artelanak ere.

Kontuak kontu, ezin da ukatu batzutan balio etikoak beharezkoak direla artea balioztatzeko (Picassoren *Gernika*, Victor Jararen *Te recuerdo Amanda...*), eta beraz, onartu behar da batzutan balio etikoak beharrezkoak direla artea ulertzerako orduan. Honek hainbat bide irekitzen ditu: defendatu daiteke balio etikoek garrantzia izan arren ez dutela estetikoetan eragiten, edo etikak artelan baten balioan eragin zuzena duela. Lehenengo irtenbideak onartuko luke etikoki ona den filma bat etikoki gaitzesgarria izatea, *Nahimenaren garaipena* filmaren inguruan esan ohi dena, eta bi judizio horiek elkarbizi dezaketela esango litzateke. Bigarrenak berriz, defendatuko luke etikoak ez den artelan bat ezin dela estetikoak izan, etikak berez estetikaren eragiten duela, eta moralki gaitzesgarria izateak edertasuna kentzen diola obra bati. Irtenbide honetatik tiraka, batzutan esan da etika ona balio estetiko gisa ulertu daitekela, hau da, moralki zuzena izateak zama positiboa ematen diola artelan bati. Planteamendu hau egiterakoan, gainera, kontuan hartu behar da batzutan artisten helburua ikustea deseroso sentiaraztea izan daitekela, eta hori egiteko moralki gaitzesgarriak diren egoerak erakusteaz baliatzen dela.

Kontuak kontu, zaila da gai honen inguruko ondorio argi bat ateratzea. Alde batetik, zaila da artearen guztizko autonomia defendatzea, giza ekoizpen gisa maila batean edo bestean etikaren menpe dagoelako. Beraz, zailena etikaren eta estetikaren arteko harremana ezaugarritzea da, baita zentsurak hortan jokatzeko duen rola zehaztea ere.

